



PEDRO MARI OTAÑOK 25 URTE BETE DITU

Urteurrena ospatzeko hainbat ekitaldi egin dituzte aurten; ospakizunei amaiera emango diete etziko festarekin >3

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Osteguna
2008-06-12

VI. URTEA 1.458. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Kamioilarien grebaren aurrean, normaltasuna eta kezka eskualdean

ELIKAGAIAK Elikagai freskoetan ari dira batik bat hutsunea nabaritzen eskualdeko saltokietan

ENPRESARIAK Biltegi handirik edo biltegirik gabeko lantegiak ari dira somatzen batez ere; kezka handia da 4-5



San Joan jaietako egitarauaren aurkezpena egin zuten atzo udaletxean. EZEIZA

LEHENGO OHITUREI EUTSI, BERRIAK SENDOTUZ

TOLOSA Atzo egin zuten San Joan jaien aurkezpena; Udalak apustu berria egin du: lau urtetan Alardeko eskopetak berrituko ditu 2

Eskolan lapurreta egin zuten atzo goizean

ALBIZTUR Bi ordenagailu, proiektorea, bideo eta argazki kamera eta 1.220 euro lapurtu dituzte 7

Ekitaldiz beterik, bihar hasiko dira Gazte Festak

IBARRA Hiru egunetan zehar adin guztiei zuzenduriko ekitaldiak eta estilo anitzeko musika emanaldiak izango dira 6



IES Hernani BHI
A. Iturriaga - K. Labaka

A. ITURRIAGA Santa Barbara auzoa z/g - 20120 HERNANI - Tel.: 943 551188 FAXA: 943 552271
K. LABAKA Karmelo Labaka 7 - 0120 HERNANI - Tel.: 943 551958 FAXA: 943 330550
e-mail: institutua@hernanibhi.com www.hernanibhi.com

ELEKTRIZITATEA
Ekipo eta instalazio Elektroteknikoak (Erdi Maila)
Instalazio Elektroteknikoak (Goi Maila)

MEKANIKA
Mekanizazioa (Erdi Maila)
Proiektu Mekanikoen Garapena (Delineazio mekanikoa)
(Goi Maila)

AURREMATRIKULA EPEA EKAINAREN 2tik 13ra



L **Laburrak****Tolosa CFn jokatzeko frogak, neskentzat**

FUTBOLA • Tolosa CFko ordezkariek deialdia luzatzen diete kadete eta senior mailako neskei. Izan ere, datorren denboraldian Tolosako taldean jokatzeko aukera izango lukete. Interesatuak bihar, 18:30ean aurkeztu beharko dira Usabal kiroldegian, froga bat egiteko. Hori dela eta kirola egiteko arropa eraman beharko dute.

Laskoraingoek Ikastolaren eguna ospatuko dute

ASIA • Laskoraingoek Ikastolaren eguna ospatuko dute igande honetan. 10:30ean azken urte haue-tan antolatzen den bizikleta ibilaldiarekin emango diote hasiera egunari. Jarraian hamaiketako eskainiko da Usabalen eta umeentzat joku ezberdinak izango dira. Ikasleek prestaturiko emanaldi ezberdinekin jarraituko dute. Aurtun, iaz bezala, gurasoek Ikastolako patioan prestaturiko paella dastatzeko aukera izango dute bertaritzen direnek. Bazkal ondoren Kazkabar-rako begiraleen eskutik tailerrak izango dituzte txikiak eta puzgarriak. Honez gain, buruz buruko finala ikusteko tartea hartuko dute.

T **Telefonoak****Larrialdiak. ((112))****OSASUNA.****Alegialdea.** Osasun z.: 943 653212**Anoeta-Alkiza-Hernialde.**

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423**Baliarrain.** Medikua: 943 889003**Berastegi-Elduain.**

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134**Ibarraldea.** Osasun etxea: 943 672411**Ikaztegieta.** Medikua: 943 653329**Irura.** Osasun zentroa: 943 690720**Leitza.** Osasun z.: 948 510800**Orendain.** Medikua: 943 655595**Orexa.** Medikua: 943 682228**Tolosa.****Anbulatorioa, larriald:** 943 461111**San Esteban:** 943 006800**Gernikako arbola:** 943 006900**Amarozko dispen:** 943 672637**Asuncion klinika:** 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

DYA: 943 672536**Gurutze Gorria:** 943 674888**Villabona.** Anbulat.: 943 006970**Zizurkil.** Aiztondo zerb: 943 693930**GARRAIOAK.****Renfe:** 902 24 02 02**Donostiako autobusa:** 943 361740**Tolosaldea bus:** 943 650621**Leitzarain autob.**: 948 221015**Taxia:** 943 670420**Taxia (Leitza):** 608 873016**BESTERIK.****Ertzaintza:** 943 538820**Tolosa-Udaltzaingoa:** 943 675858**Tolargi:** 943 650016**Iurrumendi egoitza:** 943 670325**Tolosa gasa:** 943 675320

Sanjoanetako egitaraua aurkeztu zuten atzo; bertan izan ziren, festa batzordeko kideak eta kirol sailekoak. ESTI EZEIZA

Jaurtigairik gabeko munizioa erabiliko da aurten, Alardean

Aisia » Sanjoanek gainean dira eta Udalak apustu berria egin du; lau urtetan Alardeko eskopetak berrituko ditu.

rrak mantenduz eta berriak sendotuz. Atzo aurkeztu zuten festetako egitaraua Udaleko ordezkariek.

Urtetik urtera gero eta indar handiago hartzen ari dira Sanjoanek, duela urte gutxi Udalak hartutako eronkari esker. Hala, geroz eta oihartzun handiagoa duenez, egitaraua ere «landuagoa» dela esan daiteke. Honen adibide dira, antolatutako kontzertuak. Izan ere, besteak beste, Oskorri, Jojo Bordagarai, Jabier Muguruza eta Kerobia ariko dira.

Kirol ekitaldiei dagokionean, nabarmentzekoa da San Joan eguneko desfinoa. Carlos Peña igerila-

ria eta Jose Luis Korta arraunlari ospetsua izango dira aurrez aurre. Honez gain, urteroko batel estropadak jokatu dira Oria ibaiko uretan. Bestalde, egitarauan ageri ez bada ere, Asegarcekoen eskutik, pilota partidak izango dira hilaren 23an.

Alarderako eskopeta berriak

Sanjoanetako ekitaldi nagusienera bat da Alardearena. Bertan, 400 eskopetari inguru ateratzen dira kalera, armak eskuetan dituztela. Orain arte, eskopeta arruntak erabili dituzte hauek, baina Udalak aldatetako egitea erabaki du, honen arriskua ikusita. Hala, lau urte

hauetan, eskopeta guztiak berrituzko eronka hartu du, ohiko ehi-za eskopetak alde batera utzi, eta jaurtigairik gabeko munizioa erabiltzen dutenekin ordezkatuz.

Hasteko, aurtengo Sanjoanetan, hiru konpainiek erabiliko dituzte eskopeta berezi hauek, denera 150 atera dituztelarik merkatura. Eskopeta hauek 60 euroren truke erosi ahal izango dituzte ekitaldi horretan parte hartu behar dutenek. Andoni Iturzaeta, Jai Batzordeko Zuzendariak azalduetakoaren arabera, «Berez 185 euro balio dituzte eskopeta horiek, baina lortu ditugun laguntzei esker, merkeago eskuratu ahal izango dituzte interesatuak». Bestalde, jendeak zer bait ordaintzea nahi zuten Udalekoek, «eskopetari bere sentitzeko arma eta hobeto zain-tzeko».

Asteburu honetan lehen ekitaldiak

Sanjoanek ofizialki hilaren 21ean hasten badira ere asteburu honetan zenbait ekitaldi izango dira. Hasteko, etzi, 10:00etan, goiz eta arratsalde, San Frantzisko pasealekuan, kale saskibaloia, 3x3 IX. San Joansaria izango da. 11:00etan berriz, eskualdeko taldeetako dantzari txikiak bilkura izango da. Arratsaldean, 16:00etatik aurrera, graffiti erakusketa izango da Trianguloan. Ordu bat berandua go hasiko da Skate lehiaketa, Lopez Mendizabal pasealekuan. Jarraian, Kultur Etxeko dantza tailerretako ikasleek emanaldia izango da Leidor antzokian. Azkenik, eguna borobiltzeko, Frontoi kafe-tegian kontzertua izango da, Jojo Bordagaraien eskutik.

Igandean, 10:00etatik aurrera gimnastika erritmikoko emanaldia izango da Usabal kiroldegian.

Asteburuan, rocka nagusi, Bonberenean

Musika » Audience, Zein?, Double Agents eta Hotel taldeen kontzertuak izango dira bihar eta etzi, Tolosako etxe okupatuan.

ERREDAKZIOA

Munduko beste puntako nahiz Euskal Herriko taldeak izango dira asteburu honetan Bonberenean. Motorrak berotzeko, bihar, 22:30etik aurrera, Audience eta Zein? taldeak ariko dira.

Bi talde hauek Bizkaia-rik datoz haien azken lanak aurkeztera, Aundiencen lehen lanak *Trying wings on roots* du izena. Mondosonoro aldizkariak 2007ko estatu mailako disko onena bezala aukeratu zuen hau. Audience taldea Bizkaiko Gernika eta Busturiako herrietan sortzen da. Beraien lehen maketarekin (1999) 2000. urteko Bilbo Hiria lehiaketako fina-

Audience taldea izango da bihar *Trying wings* diskoa aurkezten. HITZA

lera iritsi ziren. Zein? taldekoek berriz, *Ahari talka* izeneko argitalpena aurkeztuko dute. Inoiz baino freskoago, zailduago eta poperoago dator taldea hirugarren lanarekin. 90eko hamarkada hasierako Ama Say taldearen errautsetatik jaio zen Zein? 1999an eta Gontza-

lek (bateria), Joakinek (gitarra), Mikelek (baxua) eta Kepak (ahotsa eta gitarra) osatzen dute. Ahari talka lanean melodia ederrak, ukitu rockeroa duten pop kantak, psikodelia eta freskotatasuna eskaintzen du bandak.

Larunbatean berriz, 22:30etatik

aurrera, Double Agents eta Hotel taldeak ariko dira eskenatokia antzintzen.

Double Agents taldea Australiatik dator bertan kaleratu duten azken diskoa aurkeztuz. Baina honez gain, beraien musika Euskal Herrian ezagutzera emateko asmoz datoz. Hauekin batera izango da, Tolosako etxe okupatuan, Hotel talde gipuzkoarra. Da eta haien azken diska *Suites* aurkeztuko dute.

Talde Donostiarra 2001. urtean sortu zen. Hotel izenaren azpian musika munduan esperientzi handia duten hiru musikari ikus ditzakegu. Estatu mailan gelditzen diren gutxienetako hirukote organikoak da kasu honetan. Beraien musika izugarria eta zorrotza da, atmosferikoa, hau da Rock-a da. Hori bai, beraiek esparru ez komertzial batean murgildurik daude, bertako influentzia beraiek berbera direlarik.

Zizurkilgo Pedro Mari Otaño eskolak 25 urte bete ditu ikasturte honetan. Dorita Lorenzo lehenengo zuzendariak eta Maria Jesus Zaldúa egungoak, eskolaren historia eta gaurko egoera azaltzen dute.

25 urte eta aurrera begira

IMANOL GARCIA

Mende laurdena bete du Zizurkilgo Pedro Mari Otaño eskolak. Hasiera ez zuen batere erreza izan, Dorita Lorenzo lehenengo zuzendariak azaltzen duenez. «Egun, Pedro Mari Otaño ikas komunitatea da, guraso, ikasle, irakasle zein herriko eragileek parte hartzen duten hezkuntza proiektua», Maria Jesus Zaldúa egungo zuzendariak zehazten duenez.

Eskolaren inaugurazioa 1982-83 ikasturtean izan zen eta horregatik ikasturte honetan 25. urteurrena ospatzen ari dira. Zailtasunak izan zituzten eskola martxan jartzeko. «Eraikinaren eskeletoa egina zegoela, gelditu egin zituzten obrak», gogoratzen du Lorenzok. «Orduan mobilizazioak egin hasi ginen. Villabonan N-1 errepidea moztu genuen hiru egunetan eta 2 autobus joan ginen Donostiara, Hezkuntzaren ordezkaritzara. Guraso, irakasle eta ikasleak joan ginen eta Boulevard kaleetik pankarta eta guzti joan ginen». Azkenean obrak martxan jarri zituzten berriro.

«Udalak eta orduan alkate zen Mikel Arrastoak lan handia egin zuten», dio zuzendari ohia. «Gune honetan eliza bat eta etxebizitzak eraiki nahi zituzten, baina Udalak eskola egitea bultzatu zuen».

Aldaketa ugari

Egungo eraikinera joan aurretik, orain Jesusen Bihotza Ikastola dagoen eraikinetan egon zen eskola publikoa. «Eraikin berri bat behar genuen», dio Lorenzok. «Beharrezkoa zen, haur gehiegi baitzegoen gela bakoitzeko».

Eraikin berriak hainbat berritasun izan zituen hasieratik: laboratoriorio, gimnasioa, tailerrak... Garai hartan Oinarrizko Hezkuntza Orokorra zegoen eta ikasleak 14 urte arte egoten ziren. Gero, Logse sistema ezarri zenetik, hau da, Haur hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Otaño eskolan 2tik 12 urte bitartekoak egoten dira, LH



Dorita Lorenzo eta Maria Jesus Zaldúa. I. GARCIA



Eskolaren hasierako urteetan, gela batean ateratako argazkia. HITZA



Batuka jotzen duten ikasleak etziko festarako entsegua egiten, atzo. I. GARCIA

bukatu arte. Hizkuntz ereduetan ere aldaketak izan dira. Hasieran A eta B ereduak ziren eta eraikina egon eta berehala D eredu jarri eta A eredu kendu zen. Orain 15 urte inguru D eredu bakarrak dago martxan.

Lorenzo 1993 arte egon zen eskolan. Azken urteetan ez zen zu-

zendaria izan eta gaztelera eta matematika ematen zituen. Zuzendari zenean ere ematen zituen eskolak.

Ikas komunitatea

Urte hauetan guztietan hezkuntza eta pedagogiaren ikuspuntutik ere aldaketa handiak izan dira. Zal-

» FESTAREN EGITARAUA

- **10:00.** Alebina futbol partida, Pedro Mari Otaño-Asteasu.
- **10:30.** Haur jolasak.
- **11:00.** Benjaminen futbol partida, Otaño-Asteasu.
- **12:00.** Ikasleen emanaldia.
- **13:00.** Antzerkia.
- **14:00.** Bazkaria.
- **15:30.** Pedro Mari Otaño batuka taldea.
- **16:00.** Puzgarriak, gazteluaren jokoa, ludoteka...
- **16:30.** Mus txapelketa.
- **17:00.** Elkarren arteko jokoa.
- **20:00.** Amaiera.

duak 22 urte daramatza Otaño eskolan, azkeneko hirurak zuzendari bezala eta aldaketa hooriek guztiak bizitu ditu. «Eskola beti egon da prest berrikuntza pedagogiko guztietan sartzeko», azaltzen du Zalduak.

Pauso handiena, orain bost urte, eskola ikas komunitate bihurtzeara izan da. Hiru ildo nagusi ditu, zuzendariak azaltzen duenez. Alde batetik, «ziurtatu antolaketa bat eskolaren partaide diren guztiak aktiboki parte hartzeko». Horrez gain, metodologia aldetik, «talde interaktiboak sortu ditugu, talde txikitik lana eginez». Hirugarren ildo formakuntzarena da, «ez bakarrik irakasleei zuzenduta, baita ikas komunitatea osatzen duten beste partaide guztiei ere».

Urteurrena ospatzen

Hainbat ekitaldi egin dituzte aurtengo ikasturtean urteurrena ospatzeko. «Eskolatik pasa diren parte-hartzea bultzatu dugu», dio Zalduak. Beñat Barandiaran ikasle ohia urteurrenako abestia egin du. Naroa Geresta ikasle ohia bertsoak egin ditu. Azkue eskultoreak logoa diseinatu du. Oihane Igerabide ikasle ohia harpa emanaldia egin zuen. Bestalde, Otaño abesbatza sortu berriak estreinaldia egin du ikasturtean.

Ospakizunei amaiera emateko, etzi eskola festa egingo dute. Bertan, besteak beste, ikasle ohiek antzerki emanaldi bat egingo dute.

Jardunaldi Internazionalisten saio bat egingo dute gaur Musika Eskolan

Villabona » Euskal Herriko Lagunek emango duten hitzaldia, 20:00etan, izango da egingo duten ekitaldia.

ERREDAKZIOA

Boikotak piztuz, elkartzuna eraiki! lelopean antolatu dituzte aurtengo Jardunaldi Internazionalistak eta saioetako bat gaur egingo dute Villabonan, hain zuzen. Euskal Herriko Lagunek hitzaldia emango dute, 20:00etan, Musika Eskolan, lehengo kultur etxean. Bertan izango dira, antolatzaileek azaldu dutenez, «Europa mailan Euskal Herriaren aldeko elkartzun borrokan lanean ari diren brigada desberdinetako kideak: irlandarrak, italiarrak...».

Aurtengo Jardunaldi Internazionalisten hiru hankak *Israeli Boikot* eta *Cocacolari ez!* ekimenen lanketa eta zabalkundea eta Euskal Herriaren Lagunen bisita izango dira.

Laburrak

Lopetegi, Real Madrid Castellako entrenatzailea

ASTEASU » Julen Lopetegi asteasuarra Real Madrid Castilla taldeko entrenatzaile izendatu berri dute, hau da, klub horretako bigarren taldeko entrenatzailea. Bi urtetaroko ikasturtean urteurrena ospatzeko. «Eskolatik pasa diren parte-hartzea bultzatu dugu», dio Zalduak. Beñat Barandiaran ikasle ohia urteurrenako abestia egin du. Naroa Geresta ikasle ohia bertsoak egin ditu. Azkue eskultoreak logoa diseinatu du. Oihane Igerabide ikasle ohia harpa emanaldia egin zuen. Bestalde, Otaño abesbatza sortu berriak estreinaldia egin du ikasturtean.

Aizkardiren irteera berri bat igande honetarako

VILLABONA » Aizkardi mendi elkar-teak irteera berri bat antlatu du igande honetarako, hilak 15. Pipaon-Palomares-Biasteri ibilbidea egingo dute. Izena emateko 943 69 44 58 zenbakira deitu daiteke edo Aizkardiren egoitzara joan. Gaur da horretarako azken eguna.

Hilberriak

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

MARIA LUISA GASTAKA MENDILUZE

(Joxeantonio Atorrasagasti "Aiendi" ren alarguna)



"Betirako, gure amona Mamuxa"

Zure bilobak

MARIA DOLORES AZKUE IDIAKEZ

Samina gurean, barre goxoak gogoan



GETARIA
2008ko ekainaren 12a

Oiarzabal-Idiakez sendia

KEZKA ETA NORMALTASUNA

Ekonomia • Garraioariak astelehanean ekin zuten grebaren eragina batik bat elikagai freskoetan nabaritzen ari da eskualdean.

LETERRADELLOS N. LATAURU

Pasa den astelehenean ekin zioten garraioariak greba mugagabea. Gipuzkoako Guitransen elkarrekin ere bat egin zuten grebarekin eta, ondorioz, gure eskualdean ere greba gogotsua gertatu da.

Hala ere, greba honen eraginez ez da berdina izan sektore guzietan. Gasolindegietan, estaterako, kontratuko zabaldu den arren «oraingo» ez dago hornikuntza arazorik, Josean Sobrinio Tolosako Petronen gasolindegiko arduradunak azaldu bezala. Izan ere, astelehanean grebarekin ekin behar ziotela jakinda jendea «ikararuta» edo «deposita» bezalako auto-lan-kaezak sortu ziren «batez ere ostiraletik astelehenera bitartean». Hori dela eta atzokoan «lan gutxi» izan zuten gasolindegietako langileek. «Astelehenera eromera izan zen, jendeak nahiz eta deposita ia ia beteta izan 5 eta 10 euro botetzen zizkion berriro erabat bete zezake baina gu lasai ginen, izan ere, hornikuntza soberan dago, luzerako josten baduzue».

Grebaren jarraipena handia izaten ari dela baieztatu dezake gasolindegietan izan ere, «errepik al-ban gaudu eta ia-ia ez dugu kamioirik ikusi egun hauetan, eta are gutxiago gurean gertatu dituen gasolindegietan, adierazi du Maria Jakiak Villabonako Repsol gasolindegiko langilea.

Sektore guzietara zabaldu da eragina

Ekualdeko gasolindegien kasuan, hornikuntza arazorik ez badute ere beste hainbat sektorek eragina jasotzen ari dira dagoneko.

Elikagaiak salatu dituzten komertzioak, estaterako, janari fresko gabe gertatzen ari dira. «Hiru eguneko inoan dezake janari freskoak beraz, berria ez datorrikunaz pikkanaka ezezagabe gertatzen arigara, batzuek ere, arrainak, haragia eta fruituak, informatu du Mireia Manfrique Tolosako Maxi Eroski supermerkatuko salmenten arduradunak. «Hiru tuntez dago luzerako duten produktuekin, noski, ez da hain gertatu hornikuntza lagunenak eta hauekin ez dago inongo arazorik». Bestalde, greba bustoetara aurreratuak «gure biltegian ohi baino produktu gehiago genituen». Hala ere, «zaila» egin zaie kantitatea zabaltzea, «ez baita izango irarungo duen greba».

Gasolinaren kasuan bezalaxe, elikagaien salmentetan ere gertatu dute erroketak, produktuek agortu ko direnaren beldur direla. «Jendea normalean baino kopuru handiagoan erosten ari da, baina iraupen luzeago duenaren beldur».

Lehenetsueneko produktu guzietan ez da berdin nabaritu grebaren eragina. Elikagaiak dagoneko faltan dauden bezalaxe, farmazie-

tan, estaterako, apenas nabaritu dute kamioiariak greban daudetik. Villabonako Maria Luisa Fernandez Urangia farmazian adieratu dute ez dutela inongo arazorik inondik inontuz hornitzea. «Agiñ Zaragozatik datozten kamioiak ez zaizkigu helteen baina hemen gertatu lan egiten dutenetara jo dugu, hauekin ez baitago arazorik, beraz, oraingoz normaltasunez ari gara lanetan». Jendeak ez duela gehiago kontsumitu ere aipatu dute farmaziako arduradunak.

Halaber, Dasko, Jaurlaritzako Miten Azkarate boteremilik berria, hain zuzen ere, Birsauko mugako blokeatuta dago kamioietatik; Pasaiako portuan ere ez dago inondiko garraio nerbitzarik eta Gipuzkoako gaineko eskualdeetan ere garraioari gehiutsuenek babestu dute greba.

Grebaren balorazioa atzoko egunaren hartira

Kamioiaren ordezkariek eta Espainiako gobernuak negoziaketa lanetan ari dira, baina oraingoz, ez dira akordio batera heldu. Bien bitartean, grebak jarraitu egiten dute eta eskualdean hirugarren eguneko euzko kamioiariak lan ez egiteari.

Azoko egunari dagokionez, Guitransen, Gipuzkoako kamioiariak elkarrekin adieraz eman zuten, «Gipuzkoako kamioiari gehienek jarraitu zuten grebarekin, aurreroko egunetan bezalaxe; hain zuzen ere, Birsauko mugako blokeatuta dago kamioietatik; Pasaiako portuan ere ez dago inondiko garraio nerbitzarik eta Gipuzkoako gaineko eskualdeetan ere garraioari gehiutsuenek babestu dute greba».

Honen guztiaren aurrean, herri-errei erabilduek lasitasunez jokatu eza eskatu dute eta erroketak ohi ko moduan egiteko aholkatu.

Garraioariaren eskaerak

Guitransen eskaeren artean, eta grebara eraman dituztenak segurtasunekoak dira gizarte segurtasun kotizazioa %70ean murriztea; ICO kredituen sarbidea egingo den baino bidaltzea hobeto izatez; BEZaren ordaintza azkarrago egitea; azpiegiturak eta asedien guneak egokitzeta eta fakturari buruzkoen maldak aplikatzea; hau da, gasolinak gure eginez gero fakturari hori aurreratu, baita behera egingo balu ere. Eta faktura hauek 30 egunen buruan hobartzera behar zateke, lege dekretuz. Azken eskaera hau Frantziara ezarri da.



Jendea bildotzen ere erabaten ari da gasolinak...



Grebaren lehen egunetan jendea pilatu ostean, atzokoan gasolindegietan lan gutxi egin zuten...

euskara zure-azoka

bererapala gator

» INKESTA

1. Neuri bereziak hartu a dituzte garraioariaren greba dela eta?



Mari Karmen Zubillaga eta Jose Luis Garaikoetxea

1. Gu beti bezala etorri gara erroketak egitera. Gasolina ere ez dugu behar baino gehiago erosi greba dela eta. Beraz, gure kasuan behintzat ez dugu ere egin.




Rakei Olano

1. Harritu nau erroketak egitera etorri eta apalean gauza asko falta direla ikusteak; nik, ordea, ez dut ohikoa baino gehiago erosi. Behar nituen lau gauza erostera etorri naiz supermerkatuara.



Arto San Sebastian

1. Egia esan normalean lan-batean egiten ditugu erroketak, baina greba dela eta badaezpada lehenago etorri naiz gasolinere grebarekin, eta «horrek bizirik artekatzeko zigorra esan nahi du».



Elikagai freskoak dauden aplikak erdi hutak daude supermerkatuetan, garraio greba dela eta...

Eskualdeko enpresetako arduradunak, «kezkatuta»

Ekonomia • Garraioaren greba eskualdeko enpresetako, erri eta enpresarietan ere «eragin handia» izaten ari dela diote.

IT-NA

Kontsumitzaileek izan dezaketen eragina nabarmena bada, asokargitza ikusi dute garraioaren beharra ezinbestekoa duten enpresen kasuan. Eskualdean dauden enpresa txiki, erri eta handienek dagoneko izan dituzte grebaren leheneragirik. «Garraioariak dute boterea izugarria da gainontzekoan lana euren esku baitago

neurri handi batean», diote enpresariak.

Garraioa enpresaren produktzio ezinbestekoa da, bai egindako lana enpresatik kanpoan bantatzeko bai lana egiteko behar diren materialak jasotzeko ere. Enpresetako arduradunak azaldu dute, «biltegirik handirik edota biltegiak, gabe lan egiten duten enpresak dira kalteak. Horien artean, besteak beste, daude autoak egiten eta konponenten dituztenak edota enpresa txikiak, behar dituzten pieza ez dituztelako jatorria».

Hori dela eta, euren ekolojia gaita behartuta ikusi dute egun gutxi buruan. Hain zuzen, da

gure enpresa asko itxile erabak hartzen ari direla eskualdean. Biltegi materialak dute, baina, «egun batzuetan makinak ez gertatzen moduan» daude elduta, izan arren, «kezkatzen» hasiak dira, izan ere, «greba igarotzen den egun bakoitzek arazo gero eta handiagoa du».

Grebaren amaieraren eragina larri izango da

Arduradunen ustez, ordea, egoera txarra ez da greba egunetara mugatuko eta garraioariak grebarekin amaitzen ematen erabiltzen duten enpresa asko kostatuko da normaltasunez aritzea, orain atera ez den lana pilatu egindako delako.

Pello Odriozolari «bizi arteko kartzela zigorra» ezarri diote

Tolosa • Askatasunak jakinarazi duenez, 1977/2006 doktrina ezarri berri diote tolosarri 2018an irtegarri litzateke.

1977/2006 doktrina ezarri diote. Gaur egun Bonexko (Galizia) espetsuan daude. Askatasunak jakitera eman duenez, «dagoneko 29 euskar presoari aplikatu diete neurri hori. Euskalduko neurriko Guantimo eraldota erabili dute. Espainiak eta Frantziak», dio Askatasunak.

ERREKAZIOA

Askatasuna erabilduek atzo jakinarazi eta salatu zuten. Pello Odriozolari Agirre euskar preso tolosarri Espainiako Auzitegi Gorenak 1977/2006 doktrina ezarri berri diote, eta «horrek bizi arteko kartzela zigorra esan nahi du».

Neuri horren arabera, Odriozolari 2018ko urtarrilaren 19an irtegarri luke espesetetik. 1988ko urtarrilaren 28an atxilotu zuten Espainiako Polizia, ET Areakin harremanak izatea egotzita. 30 urteko espesete zigorra ezarri zioten eta, erroketak jarri zioten eta, erredentziako konpian izanik, datorren urtarrilaren 2an aske galditu behar ko luke. Aste honetan bertan, ordea,

Ines Del Riorri ere luzatu diote zigorra

Pello Odriozolariaren batera, Ines Del Riorri (Tafalla, Nafarroa) ere zigorra luzatu egindako diote informatu zuten Askatasunak, baina oraindik ez duteela kartzelenk trantsizioa jarri. 1987ko urtarrilaren 28an atxilotu zuten Espainiako Polizia, ET Areakin harremanak izatea egotzita. 30 urteko espesete zigorra ezarri zioten eta, erredentziako konpian izanik, datorren urtarrilaren 2an aske galditu behar ko luke. Aste honetan bertan, ordea,

hitza elastiko berriak salgai

elastikoarekin poltsa opari!

Tolosako HITZAREN bulegoan eskuragarri.

Ekain beltza berriarekin

Utzi zure inakurteko modukoak

Lau libururik ekainak 7, 14, 21 eta 28

+ 2,9€



Urteroko ohiturari jarraituz, txokolatada eta tortillada egongo dira Gazte Festen bigarren egunean. HITZA

'Gure lurra defendatu!' lelopean bihar hasiko dira Gazte Festarik ospetsuenak

Ibarra » Hiru egunetan zehar estilo guztietako musika emanaldiak egongo dira herriko plaza eta Gaztetxean.

«**Kontzertu itzelako**» Bihar hasiko diren jaietan «kontzertu itzelako» egongo dira. Hiru egunetan 6 musika taldek joko dute Ibarren. Hauekin batera,

Aritz Sound System eta Mulambo ere egongo dira eta azken egunean, igandean, Loatzo Musika Eskolaren emanaldia egongo da plazan 18:00etan.

» EGITARAUA

- Ekainak 13, bihar**
- **19:45ean.** Txupinazoa.
 - **20:00etan.** Mulambo kaleak berotzen.
 - **21:00etan.** Barrikotea Gaztetxean.
 - **22:00etan.** Txoznen irekiera eta kontzertuak plazan: Hesian, Banda Batxoki eta Naizroxa taldeekin.
 - **Tartean.** Ekitaldia.
 - **02:00etan.** Aritz Sound System Gaztetxean.

Ekainak 14, etzi

- **12:00etan.** Ume jokauk eta buruhandiak plazan.
- **16:00etan.** Mus Txapelketa Sendi Ekintzan.
- **16:30etan.** Xurdinen euskarakea plazan.

ASIER IMAZ

Gure lurra defendatu! lelopean Ibarako Gazte Asanbladak Gazte Festak antolatu ditu. Bihartik igandera bitartean, hiru egunetan, haur, gazte eta helduentzat hamai-ka ekitaldi egingo dira Ibarren, autogestioa ardatz duten jaietan barnean. Gazte Asanbladak «mundu guztia» gonbidatu du, jaietara gerturatzeko eskatuz.

«AHT, errauskailua, ...»

Gazte Asanbladak *Gure lurra defendatu!* leloa aukeratzekoan, «AHT, errauskailua, Garoña, ...» hartu dituzte kontuan, «euro zikin batzuen truke gure lurra saldu eta sutsitu nahi dituzten horiei mezu zuzena» helarazteko asmoarekin.

Gazteluarrak nagusi Gipuzkoako Seg Txapelketan

Kirolak » Marialuixa Gabirondok irabazi zuen emakumezkoetan eta Andoni Goikoetxeak gizonzkoetan.

ERREDAKZIOA

Iragan igandean jokatu zen Gipuzkoako Seg Txapelketa emakumezkoetan eta gizonzkoetan mailan Zizurkilen. Bietan Gazteluko segalariak izan ziren irabazleak. Emakumezkoetan Marialuixa Gabirondok jantzi zuen txapela eta gizonzkoetan Andoni Goikoetxeak hiru jardunaldi jokatu dituzte sailkapen ligan eta lehen lau sailkatuek finala jokatu dute ekainaren 29an Larraitzen.

Lehen jardunaldia nazioarteko eran jokatu zen, hau da, azkartasuna eta txukuntasuna hartu ziren kontuan.

Emakumezkoetan finala

Emakumezkoek, lau segalarik, 42 m2-ko bina sail ebaki zituzten. Jardunaldi bakarrera jokatu zuten txapelketa, eta beraz, final itxura zuten lehiak. Iaz jokatu zen lehen txapelketa eta Arrate Garin legorretarrak irabazi zuen; txapeldu nordea Marialuixa Gabirondo

Gazteluko izan zen. Iragan igandean jokatu txapelketan aldeantiz gertatu zen, Gabirondo Garinen aurretik geratu baitzen.

Lehen sailean Gabirondo izan zen azkarrena (1:29) eta Garin bigarren (1:48). Bigarren sailean ere Gabirondogailendu zen (1:47), Garin berriz ere bigarren gelditu zen (1:45). Bi sailak ebakita, Gabirondori 8 segundoko penalizazioa ezarri zioten epaileek eta Garini 4 segundokoa. Hirugarren eta laugarren posturako oso lehia estua eduki zuten Gorostidi eta Olano gazteluarrek. Lehen sailean azkarrrago jardun zen Olano, baina bigarren goan Gorostidi aurreratu zitzaion. Amaieran bi segundoren aldeaz, Josune Gorostidik lortu zuen hirugarren postua eta Yurre Olanok laugarrena.

Gizonzkoetan lehen urratsa

Hiru jardunaldietatik lehena jokatu zuten Zizurkilen gizonzkoek. Sailkapenaren lehen postuan Andoni Goikoetxea gazteluarra aurkitzen da, Mikel Aranalde herritarren aurretik. 3. Urki orendaindarrak dago. 4. Etxeberria amasarra eta Arkaitz Arteaga baliarraindarrak 5. Bigarren jardunaldia igandean jokatu dute Orendainen 12:00etan. Finala berriz ekainaren 29an izango da Larraitzen.

Laburrak

Larunbatean jaien inguruko prentsaurrekoa 19:00etan

IBARRA » Hainbat ibarrek abuztuan egingo diren *Bartolo Jaien* inguruko prentsaurrekoa antolatu dute ekainaren 14ean, etzi, herriko plazan 19:00etan. Bertan «festa batzordea osatzen duten herritarren lana errespetatuz, jaietan aldarrikapen ekitaldiak antolatu behar direla» aipatu dute, «Udalaren jarrera salatuz». Prentsaurrekora herritar guztiak gonbidatu dituzte. «*Bartoloren jai*, ibartarron nahia! Herriko festak herritarrentzat!» aldarrikatu amaitu dute deialdia.

Harremanak hobetzeari buruzko hitzaldia

LIZARTZA » Udalak ekainaren 16an, astelehenean, hitzaldia antolatu du Kulturunean 17:00etan. *Elkar komunikatzen eta gainerakoekin ditugun harremanak hobetzea* ikastea izango da hitzaldian aztertuko den gaia. Hizlariak berriz Sonia Ulazia eta Elena Iraolagoitia izango dira. Hitzaldia doakoa izango da eta adin guztietarako jendartearentzat egokia, Udalaren esanetan.

AHTren aurkako elkarretaratzea gaur

TOLOSA » Tolosaldeko AHT Gelditu! Elkarlanak elkarretaratzea egingo du gaur 18:00etan Aranburu Jauregiaren inguruan *Amalura benetan defendatzeko iruzurrik ez, AHTrik ez! Proiektu txikitailerik ez!* lelopean. Elkarlaneko kideek azaldu dutenez «Juan Jose Ibarretxe AHTren aldeko erakusketa inauguratuko du gaur Tolosan, eta ekitaldi honen aurrean protesta egiteko deitu dugu elkarretaratzea». AHT Gelditu! Elkarlana taldeko kideek eskualdeko herritarrek bertara gonbidatu dituzte.

HITZA txapelketako benjaminak finalerdietan

BERASTEGI » Etzi 11:00etan Berastegiko pilotalekuan V. HITZA Pilota Txapelketako finalerdiak jokatu dituzte benjamin mailan. Finalerdietara iritsi diren bikoteak hauek dira: Sagarazu-Mujika eta Karabal-Espelusin, hauek lehen finalerdia jokatu dute eta bigarren finalerdia jokatu dute irazustabarrena-Altuna (Alegia) eta Zubillaga-Lezea (Berastegi).

Iragarki laburrak

LANA

■ **Iturgina.** Iturgin lanetarako pertsona behar dugu. 685 22 70 58.

SALGAI

■ **Etxea.** Etxebizitza salgai Tolosa Alde Zaharrea. Merkea. Obrak egin behar da. Interesatek deitu: 657 23 0011/634 9194 82.

Eskolan lapurreta egin dute, komuneko leihotik sartu ondoren

Albiztur » Bi ordenagailu eramangarri, bideo eta argazki kamera, proiektore bat eta 1.220 euro inguru eraman dituzte.

NEREA URBIZU

Albizturko eskolan atzo goizean, 07:00etan Udaletxeko langileetako batek eskolako ate nagusia ireki itxuratu zuen, eta orduan baten bat lapurtzera sartu zenaren susmoa hartu zuen, eta hala izan zen. Gauean zehar lapurrak komuneko leiho txiki batetik sartu zirela dirudi, eta eskolan behin sartuta, nahi izan zutena hartu zuten, gero, eskolako ate nagusitik ateraz. Ateko sarraila aterata zegoen.

Eskolako zuzendariak azaldu bezala, lapurrek eraman zutena honakoa izan zen: bi ordenadore eramangarri, proiektorea, bideo kamera bat, argazki kamera bat, diru txartel bat eta bulegoan gutunazal batean zegoen dirua (220



Eskolako atetik atera ziren lapurrak. Sarraila aterata zegoen goizean. N. URBIZU

euro inguru, eskola txikietako kamisetetako dirua). Lapurtutako diru-txartelaren bidez, Albizturko Kutxatik 1.000 euro atera zuten,

hiru alditan: «Lehenengoan 600 euro, ondoren, 300, eta azkenekoan 100 euro. Guztira, 1.000 euro». Objektuak eta txartela arnairu

batzuetatik hartu zituzten: «Giltza behar da hauek irekitzeko baina oso arnairu sinpleak dira, pixka bat behartuz gero, ireki egin daitezke». Ondoren, bulego txikian sartu ziren, eta gutunazalean zegoen dirua hartu zuten, 220 euro, hain zuzen. Bulegoko kajoji guztiak eta paperak nahastu egin zituzten. «Dena mugituta zegoen». Eskolatik atera zirenean, Kutxatik dirua atera zuten txartelaren bidez. Goizeko seietan atera zuten dirua.

Salaketa jarri dute

Atzo eguerdirako eskolak salaketa jarri zuen Ertzaintzan, eta ertzainek atera beharreko argazkiak ere atera zituzten bertan. Ematen duenez, lapurrak eskolara sartzeko eskaileraren bat behar izan zuten, lurretik bi metro baino gehiagora baitago. Handik sartu eta salto egin behar izango zuten lapurrek lurreraino, eta komuneko duxako plateraren zati bat hautsi zuten.

Gaur 'La llamada del silencio' dokumentala izango da Amezketan

ERREDAKZIOA

Gaur, 20:30ean Amezketako babilioitzeko gelan Buruntzuntzin txabolako batzordeak antolatuta, *La llamada del silencio* dokumentala izango da. Joe Simpson eskalatailearen dokumental honetan eskaladarekiko sentitzen duena islatzen du.

La llamada del silencio ikuskizunean gizakia eta mendiaren arteko harremana azaltzen da: «Mendiak gizaki askoren bizia bete dezake, baina baita eraman ere. Mendiaren gertatzen diren istripuek, eskalatzeari uztea ere anima zaitzake». Izan ere, Simpsonek lagun asko galdu ditu eskalatzeko, eta eskalatailearen adierazpenak askotan «gogorak eta hunkigarriak» dira. *Tocando el vacío* da gaurko dokumentalaren lehenengo zatia: gaurkoa, beraz, honen jarraipena izango litzateke.

Igandean, kirolari ateak irekiz

Altzo » 'Kirolari ateak zabalik' eguna ospatuko dute goizez, Araxes ibaira joanez eta gero pilota partidak antolatuz.

ERREDAKZIOA

Altzoko Udalak eta Elordi Kultur eta Kirol elkarteak Kirolari ateak zabalik eguna ere ospatu nahi du igandean. Jendea kirolak duen garrantziaz ohartarazi nahian, baigizarte koehesioaren ikuspegitik begiratuta, bai osasunarentzako dakartzan onurak kontuan hartuta, eta bai beste herri eta kultura batzuekin harremanak izateko bitarteko modura ikusita, aurten ere Gi-

puzkoako Foru Aldundiak *Kirolari ateak zabalik* eguna antolatu du. Egun hau Altzoko igandean ospatuko dute, berez, joan den igandean bazen ere (Eskola Txikietako eguna izan zen Zerainen).

Araxes ibaira bisitatuko dute

Altzoko Udalak eta Elordi Kultur eta Kirol elkarteak bi ekimen antolatu ditu igandeko: natur ibilaldi txo bat prestatu dute lehenik, ordu pare batekoa. Aurten Araxes ibaira joango dira, ibaira eta bere ekosistema ezagutzeko: landareak eta animaliak ere ezagutuko dituzte. Hau 09:00etan aterako dira plaza-tik eta bi ordu beranduago frontoian egotea espero dute. Hamaitzekoak norberak eraman behar-



Araxes ibaira joango dira. A. IMAZ

ko du, eta edaria frontoian izango da iristerako orduan. Ondoren, pilota partidak izango dira 11:30etik 13:00etara bitarte, pilotalekuan bertan.



Euskadiko txapelkun, infantil mailan

PILOTA » Joan den asteburuan Donostiako Balda frontoian Euskadiko Pilota Txapelketa jokatu zuten infantilek binaka, eta Aurrera-Saiatzko Imanol Maiza, Eneko Labaka (Albiztur) eta Aritz Zelaia (Bidania) aritu ziren arabarren kontra. Infantil hauek 18-5 irabazi zieten, horrela Gipuzkoako txapelkun izanik. HITZA

Laburrak

Musika eskolako kurtso bukaerako saioa, gaur

AMEZKETA » Gaur, musika eskolako saioa izango da Amezketako Zumadi eskolan. Bertan, panderoa, gitarra eta trikitixa doinuak entzun ahal izango dira, abestiez gain eta kurtsoan zehar ikasi dutena erakutsiko dute. 16:30ean hasiko dira eta ondoren, merienda ere antolatu dute bertaratzeko direntzat.

Bihar odola emateko aukera izango da


ALEGIA » Bihar bertan, Alegian odola emateko aukera izango da. Beti bezala, mediku etxera joan behar da odola eman nahi duena arratsalde, 19:00etatik 21:00etara. Ondoren, indarra hartzeko mokaduxoa ere hartzeko aukera izango da.

Abaltzisketako jaietako zaldi lasterketarako izen-emate epea zabalduta

ERREDAKZIOA

Aurten ere, Abaltzisketako San Joan jaietan zaldi lasterketa antolatu dute. Beti bezala, Amezketako eta Abaltzisketako artean egingo da, biak lotzen dituen errepidean. Guztira, bi kilometro eta erdi inguruko ibilbidea da, dena aldapa gora. Ibilbidea laburra bada ere, «oso ikusgarria» da, antolatzaileek gogoratu bezala. Aurten, hilaren 22an izango da, arratsaldean, 18:00etan hasita.

Bertan parte hartzeko izena emateko epea hilaren 20an ixten da. Interesa dutenek telefono zenbaki batera deitu behar dute: 605756743. Aurtengoarekin 9 urtez jarraian antolatu dute zaldi lasterketa.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



18°
13°

GOIZA	EURIA
ARRATS.	EURIA
BEROENA	18°
HOTZENA	12°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta/Leizaola: 687 410 022. anoeta/leizaola@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra/Leizaola: 687 410 032. ibarra/leizaola@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leizaldea beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Idazle txikiak sarituak

LITERATURA ● Atzo banatu zituzten XXII. Uxola Literatur sariak Kultur Etxean. Juan Kruz Igerabidek poesia errexitatu zuen, bere alaba Oihanek harpa jotzen zuen bitartean, eta Jokin Bildarratz Tolosako alkateak banatu zituen sariak.

Ondorengoak izan ziren saridunak: LH 3-4, hizlauan, Iker Garate (Samaniego) *Ametza ala erreallitatea* lanarekin, Maider Aldazabal (Samaniego) *Ahotsik gabeko igela* rekin eta Irene Royo (Samaniego) *Miren eta musika misterio* sariarekin; olerkian, Kaiet Iglesias (Laskorain) *Nire bi aitona* lanarekin, Karla Murguialday (Laskorain) *Haizea* rekin eta Ayla Corral (Samaniego) *Hazirik fruitura* rekin; LH 5-6: hizlauan, Gorka Sorarrain (Samaniego) *Amaren bila* rekin, Maitane Artano (Samaniego) *Ganbarako misterioa* rekin eta Amaia Juaristi (Samaniego) *Mutil afrikarra* rekin; olerkian, Ioritz Egiguren (Laskorain) *Arma* rekin, Amaia Juaristi (Samaniego) *Joan zen eta ez da itzuliko* rekin eta Arian Valcarcel (Samaniego) *Ni* rekin. DBH 1-2: hizlauan, Jokin zubizarreta (Hirukide) *Parisera bidean* lanarekin, Harkaitz Legarra (Orixe) *Itsua naiz eta zer!* rekin eta Leire Zabala (Hirukide) *Egia ezkutatzeko gezurra* rekin; olerkian, Eider Arruabarrena (Laskorain) *Askatasun debekatua* rekin, Ainhoa Elola (Orixe) *Bizimodu petrala* rekin eta Ibai Esnaola (Orixe) *Haran-berri* rekin. DBH 3-4, hizlauan, Maria Legarra (Hirukide) *Tralur* lanarekin, Andoni Elola (Orixe) *Bizi zaila* rekin eta Ainara Otamendi (Uzturpe) *Bakardadearen diagnostikoa* rekin; olerkian, Josune Camarero (Hirukide) *Mahumak* lanarekin, Jone Amonarriz (Laskorain) *Banoa* rekin eta Aitor Torres (Hirukide) *Maitasun hitzak* ekin. **E.EZEIZA**



Agenda

Deialdiak

■ **Amezketak.** Musika eskolako ikasleek kontzertua eskainiko dute 16:30ean, Zumadi eskolan. Gitarra, panderoa, trikitixa eta abestiak kantatuta entzun ahal izango dira. Ondoren, merienda izango da joaten direnentzat.
■ **Tolosa.** Izaskun auzoko jaien festa batzordeak bilerara deitu du, 19:00etan, Otsabi auzo elkartearen, Denak tabernaren ondoan.
■ **Villabona.** Ramon Garciak *Baserritar jantziak* hitzaldia emango du Gurea aretoan 20:00etan, Dantza Astearen barruan.
■ **Altzo.** Hilaren 23tik uztailearen 24ra arte antolatu dute ludoteka. Begirale izan nahi duenak izena udaletxean eman behar du. 18 urte beteta izan beharko dira eta espezializazioa, kontuan hartuko dute. Ludoteka 18an hasiko dira prestatzen.
■ **Amezketak.** Hezitzaile izateko izena emateko epea itxiko da udaletxean. Bete beharrekoak: Amez-

ketan erroldatuta egotea, 1990. urtean gutxienez jaiotzea, lan-gabetua edo ikaslea izatea. Informazio gehiago, udaletxean.
■ **Tolosa.** Galtzaundi Euskara Taldeak hilaren 15erako, Araba Euskarazera joateko autobusak antolatu ditu. Izena-ematea, Galtzaundiren egoitzan bertan.


Zinema

■ **Tolosa.** Paz Encinaren *La hamaca paraguaya* filma emango dute, Zine Forum saioan, Leidor aretoan 19:15ean eta 21:45ean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal herria, 3.943 67 09 15.
■ **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5.112.
■ **Irurtzun.** Mutiloa, A.M. San Martin, 5.112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.



Billabonako Oinkari Dantza Taldeko gaztetxoek aurkezten dute

"IRAGANAREN GEROA" dantza ikuskizun berria

Dantzariak: Oinkari Dantza Taldeko gaztetxoak
Musikariak: Loatzo musika eskola
Dantza zuzendaria: Edu Muruamendiaraz
Musika zuzendariak: Iñaki Zalakain eta Aran Mugika
Soinu teknikaria: Unai Moraza
Argi teknikaria: Iker Ugalde

Noiz: Ekainak 14 larunbata, 22:30etan
Non: Billabonako Olaederra Kiroldegian
Aurrez 5€ (Herriko Okindegiatan)
Sarrera: Egunean 7€



www.oinkari.net

txilipurdika
galtzaundiren ludoteka

Begirale izan nahi duzue, ikusi nahi duzue gure agintzaren

2008ko Ekainak 14 larunbata, 22:30etan, Billabonako Olaederra Kiroldegian. Aurrez 5€ (Herriko Okindegiatan). Sarrera: Egunean 7€.

2008ko ekainak 14 larunbata, 22:30etan, Billabonako Olaederra Kiroldegian. Aurrez 5€ (Herriko Okindegiatan). Sarrera: Egunean 7€.

2008ko ekainak 14 larunbata, 22:30etan, Billabonako Olaederra Kiroldegian. Aurrez 5€ (Herriko Okindegiatan). Sarrera: Egunean 7€.